

GARBITOKIKO ANIMEN

○ ○ BEDERATZIURENA ○ ○



ATV
5.893

M-8742

R. 36.308

ATV

5.893

GARBITOKIKO ANIMEN

BEDERATZIURENA

AITA JOSÉ MARÍA AZKUE

PRANTZISKO TARAK ERATUA



Dotxao Urigüen.—Bilbao

1931

NIHIL OBSTAT
FR. COSMAS LAMARAIN
Censor Ordinis



IMPRIMI POTEST
ZARAUZ, DIE 2 APRILIS 1930
FR. ANTONIUS RECONDO
M. P.

NIHIL OBSTAT
LIC. PETRUS DE ANASAGASTI
Censor

IMPRIMATUR
VICTORIÆ, 28 OCTOBRIS 1930
MATTHÆUSEPISCOPUS
VICTORIENSIS

OARĀ

Garbitokiko Anima gaxoen oneraspena kristau - sinisle guztien artean zabalduzik dago. Ez da elizarik danik txikienik ere, Azaro-ilaran bederatziurten bat edo, egiten ez duanik. Izan ere il oretan, Santu Guztien jaia goretsi ondoren, egoki dator zeruko ateak zabaldutai dauden anima gaxoei laguntzea lenbailen zeruratu ditezen. Et guztion eginbeara bada beti ta nonai ilen alde otoi-egitea *Karidadeak* ala agintzen digulako, ondo izango da Eliz-Amaren oneraspena jarraituaz, beste aldietan baño oneraspen aundiago ta sutsuagoa izatea. Ala bada zure lanak, neke ta otoitzak, barkapen eta Jaunartzeak izan bitez anima gaxo aiek zeruratzeko, ta urtean bein gutxienegiezu bederatziurtenau. Gogarketako gogairik geitxuenak S. S. 'tik artuta daude.

Zarautz Sales'ko Prantzisko donearen egunean, 1930' garren urtean.



GURUTZE SANTUAREN...

DAMU-OTOITZA

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta egiazko gizona, zure odolaz erosi niñuzun Salbatzaile erukioña, ta egunen batean nere Epaille zoñotza izango zerana, zure aurrean eta nere kaltez orainarte egin ditudan pekatu guztien damu naiz, eta lotsaturik zure aurrea natorkizu eruki ta barkapen eske.

Gogoratu itzazu, Jauna, zure Ama maiteak eta nereak, eta nereak bezela nere antzeko pekatarien Ama erukiorak, Gurutzaaren ondoan nere onerako ixuri zituan malkoak eta bere biotzak eraman zituan oñaze ta atseka-beak; gogoratu itzazu berak eta zerofek Garbitokiko animei diezuten maitetasuna ta erukia. Eta anima gaxo aien alde zerbait egin

nai dedan ezkerro, zure esku zabala indazu, afen, elizkizun au biotz garbiz, sinismen biziz, itxaropen sendoz, eta maitetasun sutsuaz egiteko grazia; eta bederatziurten onetan irabazi al nintzaken barkapen guztiak beren onerako izan bitez. Amen.

LENENGO EGUNA

Zer dan Garbitokia edo Purgatorioa

Beren pekatuen zoñak ondo ordaindu gabe, edo pekatu ariñen batzuekin il diran animak egon bear duten lekuari ta bizikerari deitzen zaio Garbitokia edo Purgatorioa.

Asko izan oi dira Garbitokia ukatzen dutenak; baña guk sinisle geranok ezin ukatu genezake, Fedeko egia dalako. Trento'ko Elizbatañak esaten digu:

«Ama Eliza Doneak Espíritu santuaren goi-argiz, eta liburu santuak eta jakintsuak adierazo dutenez, bere Batzar guztietan erakutsi izan duala, badala leku bat Garbitokia deritzaiona, ta emen dauden animak sinislien egintza onaz, Meza Santuaz batez ere, lagunduak dirala, ta orixe bera erakusten duela ere Batzar Santu onetan».

B eraz beste siniskaiak egiak diran bezela, Garbitokia badala ere Fedeko egia da.

Li buru Santuetan arkitzen ditugun adibi-

deaz gañera, gure buruz eñaz ezagutu genezaken egia da. Gogoratu dezagun mundu onetatik anima bat Jaungoikoaren adizkide atera dala; baña beraganako zituan zoñak ordaindu gabe, edo ta utsegite ariñen batzuekin. ¿Zer egin dezake anima onetzaz Jaungoikoak? ¿Agian infernura bota? — Ez; bere zuzentasunak ezin dezake olakorik. ¿Zeruan sartuko ote du? — Ezta ere. Fedekoa da zeruan ez dala sartuko zikindutakorik. ¿Zer egingo du bada? Liburu Santuetan idatzirik dagona: « Sukatilu batean ipiñiko det, eta orgarbituko det ». Sinisten al dezu au irakurtzen dezun oñek? Sinisten beañean zaude beintzak. Bestala pekatuan zaude; etzera kristaua, siniste ausleak baño ere okeñago zera.

(Gogoratu beza norberak, eta eskatu bezaio Jaunari opa duan grazia).

Bost Aitagure, Agur María ta Gloria.

(Jauna, gorde ezazu gure Fedea. 100 egko. bark. aldi bakoitzean).

X'gañen Pio A. S. 1908.

Oaña. Bost Aitagure... esanda gero ikasbi-dearen auñetik egro. datoñen barkapenez apaindualako otoitxo bat edo jakulatoria esan diteke.

IKASBIDEA

Goragaña izan zan Jaungoikoaren aurrean Judas Makabeotaren egintza. Amabi mila diru (dracma) biali zituan Jerusalem'go Elizara, bizien ta ilen Jaun eta Jabeari ildakoen alde eske-sari aiek eskeñi zitzaiozkatzen. «Ona ta osasungaria da, esan zuan Jaungoikoak, ilen alde otoi-egitea beren pekatuen lokarrietatik onez azkatuak izan ditezen». Eta etzuan sari-gabe utzi ain bere gogoko zuan egintza ura.

Bada Onias eta Jeremias, ordurako ilak, agertu zitzaizkan, eta ezpata bat eman zioten Judas'i esanaz: «Artzazu ezpata ori Jaunaren doaia bezela, ta oreakin menderatuko dituzu Israel nere eñiaren etsai guztiak». Eta alaxe gertatu zan. Judas sei mila gudarikin (soldadukin) gudan (geran) sartu zan, eta amasei mila erailda utzi zituan lurrean; aien artean Nikanor beren buru-nagusia.

AZKEN-OTOITZA

¡Nere Jaungoiko erukioñal! apaldasun aundienakin eskeintzen dizkizut Garbibokiko anima gaxoen alde, ta beren neke-miñen aringaritzat, elizkizun onetako eskariak, eta egun onetako nere egite guztiak. Zure ontasun neurigabea, ta nere Ama ta Zurearen atsekabe ta negar samiñakatik, arindu ta go-

zatu itzazu, Jauna, Garbiiokiko anima erukarien neke-oñazeak, eta lenbailen emaiezu betiko pakea ta zoriona. Zure esku erukitsu oietan jañi nai nituzke nere guraso, senide, adizkide ta ongilien animak. ¡O nere Jesús erukioña ta Aita biotz beral! Onetsi ta artu itzazu anima gaxo aiek zuri dizuten zoren alderako eskeintzen dizkizudan kitugarñiak, bederatziuren onetako egun bakoitzean zuzenduko dizkizudan eskariak eta egite onak: eta egunen batean arkituko banintz anima gaxoak daukaten egokera lañian, eman zadazu, Jauna, orain eskatzen dizudan laguntza, ta egizu nerekin ere, nik berentzako opa dedan grazia ta erukia. Amen.

Fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace. Amen.

BIGAREN EGUNA

Nolako neke-oñezeak eramaten diran

Garbitokian

Elizako gurasoak esaten digutenez, Garbitokian eramaten diran neke-oñazeak, beren iraupenean izan ezik, infernukoak bezelaxe dira. Bañengo leiza-zulo aietan dauden anima zoritxarñekoak bezela, Garbitokiko anima gaxoak ere atsekabe ta samintasun bi dauzkate: Jaunkoa ezin ikusi izatea, ta sugañak ematen dizkaten neke-oñazeak.

Gorputzetik ateratzen dan animak, iñork ezagutu dezaken baño maitego izaten du Jaungoikoa; biziro nai luke ikusi; Jaungoikoak bakarrik ase dezake Bera ikusteko daukan gosea, bere zorionetzaz daukan egaña. Anima onek argiro ikustan du bere atsegin betea Jaungoikoa dala; beretzat euki nai luke atsegin emale ori; baña Berak eskutatu egiten dio bere arpegi edera. Au beste gabe ukatzen die Garbitokiko anima gaxoei, an dauden bitartean beren atsegiña ta zoriona.

Bestetik irazakitzen du Garbitokiko sua. Bear bezela ez bada ere, zerbait ezagutu genezake zein izugaria izango dan ango sugarak anima gaxoei ematen dien neke-oñazea, zein aundia dan Jaungoikoak pekatuari dion goñtoa gogoratzen badegu. ¡Zenbateraño etzuan nekatu bere Seme laztana, Jesús, pekatarien itxura bakarrik artu zualako! Elizako gurasoak esaten digute lufeko suak Garbitokiko suaren ondoan, suaren antza besterik ez duala: urea sutan garbitzen dan bezela, Garbitokiko suak animak garbitzen dituala: zor aundiak daukatenak, txikiak dituztenak baño denbora geiagoan egon bearko dutela beren kutsuetik garbitu arte, neke-oñaze geiago eramanez pekatu *egin zuten sentzumenetan*.

(Nere Jesus eruki zaite nitzaz.)

100 egko. bark. aldi bakoitzean IX'garren Pío A. S.

IKASBIDEA

Aita Prantzisko doneak zerura joan da gero, bere semietako bateri agerturik esan zion: «Begira seme: Alberna-mendian Kristo'k bere Zauri Doneak ezañi zizkidanean auxe esan zidala jakin bear dezu. Prantzisko Nik nere zauriak ezañi dizkizut nere ikuñitzain izan zaitezzen, eta Nik il da garo Linbora jetxirik ango animak onez atera nituan bezela, nere *Pasio* Santuaren irabaziz, nai det zuk ere il zññan egunean (Oñilaren 4'an) urtero Garbitokira jetxi zaitezela, an dauden zure Ordenako semeak eta zure Ordena maite izan dutenak andik ateratzeko, nere Nekaldiaren maitatzañlea zeran ezkerro, nere garapenean ere lagun izan zaitezzen». (Loratxuak. 220) Badira esaten dutenak (1) Portziunkula egunean ta Agoñaren 17. Prantzisko donea Garbitokira jesten dala, ta Lisboa'ko Aita Markos'ek beñiz Santu onen Zauriak indar bera dutela, ta ez dala egunik Prantzisko donea Ama Mariarekin Garbitokira jesten ez danik, bere semeak eta bere Ordenako ongileak zerura eramateko, ta gertaera askokin au agertzen dute.

Gañerakoa lenengo eguenan bezela.

(1) Pisa'ko Aita Bartolome «De conformitatibus'eta».

IRUGAREN EGUNA

Garbitokia ta Jaungoikoaren Zuzentasuna

Jaungoikoa zuzentasun goienekoa da: obeto esateko zuzentasuna bera. Ezin utzi dezake utsegiterik txikienik ere berari zor zaion kitugaririk eman gabe... Baña anima asko beren zoñak ondo ordaindu gabe ateratzen dira lurgain onetatik. Eta Jaungoikoa zuzena dala-ko, zeruko zeriona eman baño lenago, eskatzen die bere zoñak ordaindu ta kutsu guztietatik garbitu ditezela. Begira emen nola Jaungoikoaren zuzentasunak eskatzen duan Garbitokia. Zerua zarionekoen bizilekua ta garbien tokia da; baña anima kutsudunik an sartu al baliteke, elitzake garbitasunaren bizilekua izango, ango edertasuna pekatuaren lañoak ilunduko luke-ta. Jaungoikoak ondo esaten digu, pekaturik txikienik ere begiz ezin ikusi duala: elizako gurasoak beriz diote, animak berak ez luketela zeruan sartu naiko, Jaungoikoaren gogokoak dirala ez jakitera: alaxekoa da berak duten lotsa Jaungoikoaren aurrean jartzeko. Jaungoikoa zuzena da ta zuzen-zalea; oregatik eskatzen die animei beren zoñen ordaña. Animak ere zuzenak dira ta zuzen-zaleak, eta beren zoñak ordaindu arte ez dute agertu nai Jaungoikoaren aurrean.

Onetan Jaungoikoaren zuzentasuna begiratu ezkerro, efaz ezagutu genezake Fedeak Garbitokietzaz esaten diguna egia dala. Saiatu

gaitezen bada anima gaxoei laguntzen. Eskatu dezagun berentzat betiko atsedena ta zoriona.

(Nere Jesus maitearen Biotz gozoa: Egizu gero ta geiago maite izan zaitzadala.)

300 egko. bark. aldi bakoitzean. IX'gañen Pío. A. S.

IKASDIDEA

Edeslari batek esaten digu, andre goragañi aberats bati bere semietako bat il zitzaiola. Andrearen atsekabe ta naigabeak guztiz aundiak eta zakonak ziran, semea azkaña, zintzoa ta ona zalako: baña bere miñen artean etzuan negar eta negar besterik egiten, begietako miñez ikusmena galtzeko zorian jartzen zuela. Onetan il zanaren anima berak eskatu bear izan zion Jaungoikoari, añen, bere amaren Fedea ernatu zezala bare alde otoi-egin zezan. Alaxe egin zuan Jaunak.

Bein negañez zegola ikuskari bat bialdu zion: uri eder bateko *kalietatik* igarotzen ikusi zuan gazte talde undi bat, alaiki ta atsegiñez betarik zijoazen; aien artean andrea-ren semea ilun, anakak ezin jasorik, doi-doi jañaitzen zien bare lagunei. ¿Zergatik zoaz, seme, oñen ilun ta argal? galdetu zion amak. —Nere argaltasuna, erantzun zion semeak, alpeñik ixurtzen dituzun malkoetatik dator. Benetan maite banazu ta laburtu zerurako bidea, zuzendu zaizkazu Jaungoikoari otoitzak

eta *limosnak*, irabazi ta barkapenak; Mezak atera itzazu batez ere. Au obe da negar egitea baño.

(Tom. Kant.)

LAUGAREN EGUNA

Garbitokia ta Jaungoikoaren Erukia

Azaletik begiratuko bagenitu gauzak, bear bada, Garbitokia Jaungoikoaren erukiak sortutakoa ez dala irudituko litzaiguke, bertan ordaindu bear diralako, bizitza onetan ordaindu etziran zořak. Baña ondo bařendik begiratu ezkerro, eřaz ezagutuko degu, animak Jaungoikoaren zuzentasunari eman bear dioten azkeneko ordaña, ta Jaungoikoaren erukiak animei egiten dien mesedea dala: Eta egiz, eriotzan bukatzen dan bezela animentzat zerurako zoriona irabazteko denbora, berdin eriotzan bukatuko zan, Jaungoikoak nai izan balu, pekatuen zořak ordaintzeko denbora: eta zordun animak ezin sartu zitezken zeruan, ango atea itxita arkituko zituzten-ta.

Pekatu lařietatik ateratzeko etzaigu eriotz arterañoeko denbora baizik ematen: pekatu lařian iltzen bagera, betiko zarua galdua degu; baña grazian iltzen dan animarentzat bigun eta maiteki izaten da Jaungoikoa. Ordua datořenean ez du atzeratuko eriotzaren esku beltza ta gogořa: baña Berak arkituko du, erukiak bakařik arkitu dezaken bidea, zordun

animak beren zoñak ordainduta zerura igotzeko. Bere adizkidetasunean dauden animei ere eskatzen die Berari zor diotena; baña luzaturik denbora, ta eritoz ondorean emanik Garbitokian beren zoñak ordaintzeko bear duten bitartea. Onela zordun animak kitotu lezateke osoro beren zoña, ta iritxi bestela galduzat euki bearko luteken betiko zoriona. Argiro ekusi dezakezu, kristau maite oñek, Garbitokia Jaungoikoaren eñuki bigun eta zamuñari zor diogun mesedea dala.

Goratua ta onetsia izan bedi Aldareko Sakramentu guztiz donean Jesusen Biotz gurgaria ta bere Odol bikaña. (300 egko. bark.)

X'gañen Pío A. S.

IKASBIDEA

Aita Prantzisko donearen seme batek, gau batean bere anai ilberñi baten alde Jaungoikoari ta Aita Serafin'dar Zaurituari otoi-egite ari zala, agerpen añañari bat izan zuan. Besteak lo zaudela burundada aundi bat nabaritu zuan. Atera zan gelatik, eta praile talde bat beren Aita buru zutela, ilberñiaren obi añañan, bera inguratzen zutela ikusi zituan. Ilzanaren anima su-gañetan zegoan. Begiratu zuan adi geiagoz, eta Kristo aingeruz inguratua, ibilbidean zebilela ikusi zuan.

Kristo añañetik igaro zanean Prantzisko'k esan zion: —Nere Aita ta Jaun Maiteal Gure

gizatusuna artu zenuanean izan zenuan maite-
 tasunagatik eruki zaite gar oietan dagon
 animatzaz. Kristo'k ez aditua egin zion. Beriz
 igaro zanean praileak eta bera belaunikaturik
 esan zion:—Gurutzean il zīñaneau izan ze-
 nuan maitetasunagatik, eruki zaite sutan da-
 gon anima gaxo ořetzaz. Oran ere Kristo'k
 ez aditua egin zion. Irugařen aldiz orobat esan
 zion:—Nere gorputzean zure Zauriak ezaři
 zenizkidanean artu nituan min ta atsegiñaka-
 tik, eruki zaite, Jauna, sutan dagon anima
 ořetzaz. Berealaxe geldituta esan zion:—
 Prantzisko zure eskuetan jartzen det anima
 ori.

Prantziskoren zauriak onela goraldtu nai
 izan zituan Jaungoikoak, eta baitetsi Garbito-
 kian duan eskubidea. (Loratxuak 225-225).

BOSKAREN EGUNA

Gure egite onak Animen Gozagarı

Garbitokia badala erakusten digun Fe-
 deak, erakusten digu ere, gure egite on guztiak
 animen alde, Meza santua batez ere, aringari-
 ak dirala, ta oen bidez zeruko atea zabalik
 arkitu ditzatekela.

Fedeak erakusten digunez gañera, edozein
 sinisteko gizonak aldi ta eri guztietan seni-
 tartekoren bat il zaiotenean, Jaungoikoari
 eskatu oi diote, ařen il zanaren anima bere
 besarte gozoan artu dezala, bere gorputz
 ilotza luřak artu duan bezela,

Au da gizonak gizon danetik luñean beti egin duana, bere izateak bultzatzen bai-du Jaungoikoari otoi-egitera. Onetan Fedeak diguna ta gure izateak erakusten diguna bat-batera daude: biok Garbitokia badagola diote, ta gure otoitz, eskari, barkapen, irabazi ta egite onak an dauden animentzat osasungariak dirala.

Bestela zerua ta infernua bai: baña Garbitokirik ez balego, alpeñik izango litzake aurrekoak ilen alde egin izan duten guztia. Zeruan ez da laguntza beñik, eta infernukoei lagundu nai izatea alpeñikakoa da. «In inferno nulla este redemptio» Infernutik ez dago ateratzerik.

Antziñako eñi guztiak il-obietan jañi zituzten idazki onak. Israël eñiak Jaungoiko-Semea gizon egin baño len egiten zituan eskariak: Jesukristoren Elizak bere asialditik anima gaxoen osasunerako egiten zituan bere elizkizunak: onela guztiak argiro erakusten digute, eñiak aldi guztietan sinistu dutela, gure egite onen bitartez, eta gure eskariakin, aurretik il ziran animei lagundu genezaiekiela. Ernatu ezazu bada zure Fedea, ta egizu animen alde al dezun guztia. «Besteak neurtzen dituzun neñiz neurtua izango zera» dio Jesusek.

Jesus'en Biotz otzan eta apala, egizu nere biotza zurearen antzekoa.

300 egko. bark. aldi bakoitzean,

X'gañen Pio A. S.

IKASBIDEA

Aita Prantzisko donearen eta bere Prailien Loratxuetan idazki au irakurtzen da: Santu guztien jai biramonean, Eliza-Amak agintzen duanez, Joan anaia ildakoen alde Meza ematen ari zala, alako maitetasunaz oparitu zuan Aldareko Sakramentu Santua (kitugarrietan geiena balio duana da) ildakoenganako erukiaren gozatasunez eta urkoaren maitetasunez urtzen zijoala zirundin.

Meza artan bada Kristoren Gorputza Mezaerdian jaso zuanean, Seme Jesus Donetsia anima gaxoak zeruratzeagatik il zala-ta Seme Jesus'i zion maitetasunagatik, animak onez atera zitzala eskatuaz, Meza ura eskeñi zion Aita Jaungoikoari. Eta sutzaretik txinpartak ateratzen diran bezelaxe, Kristoren Nekaldiko irabaziakatik Garbitokiko animak zeruan sartzen ikusi ziran. Bizien eta ilen alde eskeintzen dan *Hostia* bera da.

(50'gañen irak.)

SEIGAREN EGUNA

Garbitokia da elkari zor diogun

maitetasunaren Piztugaria

Elkar maite izan eta batek besteari on-egin bearean gera. Au da zeruko Aitak lege zafean eman zigun agindua, ta bere Seme Jesu-

kristo gure Jaunak Ebanjelio Santuan beritu ta indartu ziguna. Lege onen indaréz maite izan bear ditugu bada, ez bakañik luñean bizi diranak, baita bizitza onetatik irten eta, orandik zerura igo gabe bidean geldituta dauden Garbitokiko anima gaxoak ere.

Eriotzak etzuan uratu aiekin gordetzen degun maitetasunaren lokaña. Gure guraso, senide ta adizkidien begiak itxi genituanean, ez genituan betiko egin, gerorako baitzik. Fedegabekoak eundalako agurak egiten dizkate il diranai. ¿Zer dala-ta?—geroago ikusiko dituztela sinisten ez dutelako. Guk ordea sinisle geranok uste degu biziak ilen bidea jaraitu bear degula, ta auretik joan ziranak beste bizitzan arkituko ditugala. Biziak eta ilak gorputz bat egiten degu, ta ondo lagundu genezaioke batek besteai alderdi batek beste-ari laguntzen dion bezela. Ala esaten zaigu *Kredo'an*. «Credo Communionem Sanctorum».

Onetsia izan bedi Garbitokietzaz degun Fedea. Inoiz baño maiteago izan oi ditugu eriotz orduan gure guraso, senide ta adizkideak. Berak eramaten digute gure maitetasuna, ta gurekin gelditzen da berea. Gure Fedeak ematen dio bizia maitetasun oneri: beñiro alkar ikusteko daukagun itxaropenak ematen dio iraupena, ta alkarñen maitetasuna onek uzten gaitu alkañi lotuta biziak eta ilak. Ilak gure laguntza eskatzeko, ta biziak animen atsedena ta zoriona iristeko.

Jesus'en Biotz opaldua: betor gugana zure
ereinua.

300 egko. bark. aldi bakoitzean.

X'gañen Pio A. S.

IKASBIDEA

Zenbat balio duten ildakoen alde egiten ditugun otoitzak gertaera onek adierazten digu. Praile *Kartujuen* edestitik artua da.

Gizon aberats gazte bateri bere aita il zitzaion, eta iletak eginda laister gazte ura joan zitzaion praile-buruari, ta gogo bete-betean, uré mordaska bat eman zion bere aita zanaren alde zerbait egin zezan.—Baietz bada egingo zuala, erantzun zion. Deitu zituan praileak, zertarako zan esan zien, eta bat-batean; *Requiescat in pace*. esan zuten. Eta nagusiak *Amen* erantzun zuan. Praileak beste gabe, buruakin agur eginda, lengo lekura biurtu ziran. Gaztea, ikusirik laister bukatu zutela, etzan oso beterik geratu, ta ala agertu zion nagusiarri. Nagusiak, goiargiz argitua, beriz deitu zien Prailiei, ta papera batean idatzierazo zien *Requiescat in pace*. Pixu batean jañierazi zuan alde batean dirua ta bestean papera: ta au bera ta dirua gora joan ziran. Gazteak, mirari au ikusita, etzekian bere esker onā nola agertu. Orduan ezagutu zuan animen alde egiten dan gauzarik txiki-enak uré pila batek baño geiago balio duala.

ZAZPIGAREN EGUNA

Garbitokia bizitza epelaren Oarpena

Garbitokietzaz degun Fedea guztiz osasungarria da guretzat. Berak bizkortzen gaitu gure eguneroko eginkizunak bear bezela egin eta gure bizikera zuzentzeko, gure argaltasunak eskatzen duanez, ona ta Jaungoikozkoa izan dedin.

Alaxe da: Garbitokiak ekartzen digu egunero gogora, zein zorotza izango dan gure Jaungoikoari egunen batean eman bear ko diogun *Kontua*. Garbitokiak erakusten digu gure begietan txikiak ikusten ditugun gauzak, ez dirala Jaungoikoaren begietan ariñak, guk ikusten ditugun bezela: bestela ez lituzke ain gogorki zigortuko. Ebanjelio doneak digunez «azkeneko arditaraño ordaindu bear ko ditugu gure zorak». Ondo adierazten digu gure epaia emango zaigun egunean Jaungoikoa oso zorotza izango zaigula. Ezertxo aztu gabe agertuko dira bere bigietan gure utsegiteak, eta orain arduratsu diran anima berak ere, zordun arkituko dira Jaungoikoaren aurrean. Edozein agintzaren biguntasuna edo gogortasuna ezagutu genezake dagokion sariari ta zigoñari begiratuta. Onela Garbitokian anima goxoak eraman bear dituzten neke-oñazeak begiraturik, ezagutuko degu Jaungoikoa Epaille (Juez) zorotza izango zaigula, ta gure

utsegite guztien *Kontua* Berak eskatuko digu-
la. Argiro ikusiko degu bada, Garbitokiaren
oroipenak orainarteko utsegiteak gofotatzeko,
auférakoan beriz ez egiteko arduratsuak egiten
gaituela. Ikasi dezagun *Kontuak* auzer ondo
atertzen, gero damu izan ez dezagu.

Jesus Sakramentatua eruki zaite nitzaz.
100 egko. bark. aldi bakoitzean.

X'gañen Pio A. S.

IKASBIDEA

Paris'ko komentu batean praile ospatsu
bat il zan, Angeliko anaia zeritzaiona. Prai-
leak, batek ezbestek, egin zituzten bere ileak
eta Ordenan egin oi dan guztia. Bakañik praile
ura geratu zan ezer egin gabe. Etzuan uste
bizitza ain ona ta gogoña eramanda Garbito-
kian egon zitekenik.

Andik egun batzuen buruan agertu zitzaion
il zanaren anima, ta esan zion nolako neke-
oñazeak zeramazkien Garbitokian. ¿Nola di-
teke ori? galdetu zion lagunak. ¿Zuk egin
dezun bizikera eginda Garbitokian?—Bai
erantzun zion: zuk eta gizon guztiak begira-
tuko bazenuteke, nola ta zein gogorki artzen
dituan Jaungoikoak utsegiterik txikienak etzi-
ñazkete arituko. Ondo dagokit Garbitokia
nere eginkizunak bear dan arduraz egin ez
nitudalako. Garbitokian nago zure egite onen

bearean. Eruki zaite nitzaz, eta ez utzi, aŕen,
ilen alde egin bear dezunik.

P. O. E.

ZORTZIGAREN EGUNA

Garbitokia penitentzi txikien Ornigaría

Gure bizitza bear bezela ona ez dalako,
alegin guztiak egin bear genituzke damutasun
eta *penitentziaren* bidez gure oben edo peka-
tu guztiak garbitzeko. Bestela ezin iritxi ge-
nezake gure pekatuen barkapena.

Baña gaurko egunean, Jaunkoaren bildu-
rean bizi dirala uste duten kristauen artean
ere, gutxi dira beren pekatuen neuriz *peni-
tentzia* egiten dutenak. ¿Nor da antziña bezela
bizi danik? ¿Zeñek bere gorputza gogorki ar-
tzen du? Gaurko kristauak lengoak baño bera-
goak gera. Edozein lekutan arkitzen degu gor-
putzarentzat atsegiña ta lasaitasuna: barau
bat edo beste egitea gogor egiten zaigu, laz-
tasunik ez degu nai. Ala ta guztiz ere Jaungoi-
koak bere legea ez du aldatu; aurrekoen legea
da gure legea; lengo eskubideak dauzka Jaun-
goikoak gurekin.

Beraz gure utsegitien barkapena iristeko,
gure damutasunaren bearean gera: baño da-
mutasun au ez da zindoa izango, azalekoa ta
ustela baizik, gure pekatuen neurian ez bade-
gu *penitentziarik* egiten.

Jaungoiko erukioak bigundu zigun bere zuzentasunaren zofa ta Garbitokia ipiñi zigun gure pekatu txikien ornigariz, eriotz orduan bear deguna besterik bete ez dagunok, eriotz ondoren, emen ornitu gabe utzi genuan guztia, Garbitokian ornitu dezagun.

Izan beikigu bada orain arte *penitentziarik* egin ez degulako pozkaia: baña ez beikigu aurrerakoan *penitentziarik* egiten eragotzi. Orain edo gero egin bear degun ezkerok, obe degu orain *penitenti* labura, geroko latza baño Bestela gure buruaren kalte izango litzake Jaungoiko erukitsuak gure onerako egin zuan mesedea.

Mariaren Biotz gozoa, izan zaite nere gaizkabidea. (Salbazioa). 300 egko. bark. aldi bakoitzean.

Racc. 348

IKASDIDEA

Bein Konrado anai doatsuari praile il beñi baten anima agertu zitzaion. ¿Zein zera zu, ta nola zaude?—Luzaro ez dala il nintzan prailearen anima naiz. Zuri eskeak infernutik onez atera naiz: baña Garbitokiko sugaren erdian nago. Au dala-ta Aita erukitsua ta biotz-bera, bizitzan lagundu zenidan bezela, *Pater noster* bat esanaz nere alde otoi-egizu.

Orduan Konrado anaia gogoz asi zan *Pater noster* eta *Requiem aeternam* esaten, ta

animak jardetsi zuan: esan, esan beriz ere. ¡O zer atsegiña artzen dedan! Ala egin zuan. eun aldiz *Pater noster eta Requiem* esanaz. Eta oek bukatutakoan anima ura Garbitokitik gloriáz beterik agertu zitzaion. Oía gauza txikiak egiteak zenbat balio duan Jaungoikoaren aurrean. ¿Nor da *Pater noster* batzuek esan ezin dezakenik?

Loratxuak 43-irak.

BEDERATZIGAREN EGUNA

Garbitokia bizitza ta eriotzan gure

pozkarⁱ ta atsegiña

Betiko zoriona iritxiko degun ala ez, ziur ez dakigu. Gai onetan Garbitokietzaz oroitzea ondo da zeruko bidean oroipen onek laguntzen bai-digu. Zeruan ezin sartu diran ezkerro garbi-garbiak ez diran animak, gure bizitza argalari begiratuta, utsa izango litzake arako degun itxaropena. Ala bada, garbitasun osoa besterik sartuko ez bada zeruan ¿Zein joan liteke ara? Gure txarkeri guztiak gure kontra jaikiko lirake gure itxaropena biotzetik kentzeko,

Oso bildurgarria izango litzake betikotasu naren oroipena garbiak diran animak besterik ezin sartu al balitezke zeruko glorian, ta eriotz ondoren zordun animentzat ez balego

zoritxararen itxaropena baizik. Gauzak onela balira bizitza guztian bilduz egongo giñake ta bildur au eriotz ordun audiago izango litzake.

Eta gurekin zer izango dan ez jakiteak emango lizkiguken estutasun ta bildura bezin aundia izango litzake, gure senidien bat iltzen danean gure biotzak izango luken laritasuna. ¿Zer itxaropen izan genezake bada, gure maitien bat iltzen danean, ikusten badegu, Jaunak elizakoak egiteko denbora emanaren, ez diola *penitentziarik* egiteko bearko luken luzapenik ematen? Gure biotzak bere zatiak bezela maite dituan guraso, senide ta adizkidien ilobi aurrean, ez genuke jakingo zer egin eta nora zuzendu, Jaungoikoak zuzentasunetik bere erukira dauzkan bideak itxita ikusiko genituzke-ta: anima gaxoen alde egiten ditugun eskariak, alperik dirala irudituko litzaiguke.

Baña laritasun au asko arindu dezake Garbitokietzaz daukagun fedea. Bera da gure itxaropenaren izaia. Berak erakusten digu, gizonak eriotz ondoren ere, Jaunaren erukia itxaron dezakela. Onexegatik da Garbitokia eztabaidaren ilutasun erdian agertzen zaigun argi edera.

Jesus, Jaun erukioia, emaezu animei betiko atesdena.

300 egko. bark. aldi bakoitzean.

X' gaen Pio A. S.

IKASBIDEA

Bein Kristina doneak ikuskari au izan zuan. Garbitokiko animak ezin neurtu ala neke-oñazeak zeramazkitela aurkeztu zitzaizkion, eta begi biak negaiez iturri bi eginda ere, uste izan zuan, batek orien neke-cñazietzaz bear bezela ezin dezakela negar egin. Ikuskari onetan Jau-nak esan zion: ¿Zer nai dezu, zerura bereala joatea, ala Garbitokiko animak daramazkiten neke-oñazeak zure egite onakin arintzeko munduan geratzea?—Jauna, oren biotz gogor-ekoa ezin niteke izan, anima oriek daramazkiten neke-oñazietzaz aztuta zerura joateko, erantzun zion Kristinak. Zuk nai badezu beintzat, munduan geratuko naiz. Eta alako gogotsuaz ekin zion bizikera gogor eta latz bateri; zer zala-ta bizi zan orela galdatzen ziotenai, erantzuten zien: zuek gai onetan onela itz-egiten dezute, Garbitokiko animak daramazkiten neke-oñazeak ezagutzen ez dituzutelako. Ikusiko bazenute zein egokera gogorean arkitzen diran, bene-benetan nik egiten dedana egingo zenuteke. Kristina donearen erukia izan dezagun anima gaxoei laguntzeko.

XIII' gañen Benito A. S.

AZKENERAKO

R. Memento mei Deus, quia ventus est vita mea, * Nec apiciat me visus hóminis. y. De

profúndis clamávi ad te Dómine, Dómine ex-
audi vocem meam. Nec aspíciat.

Kyrie eléison.

Chirste eléison.

Kirye eléison.

Pater noster, secreto. *ŷ*. Et ne nos indúcas
in tentatiônem. *R̄*. Sed libera nos a malo.
ŷ. A porta inferi. *R̄*. Erue Dómine ánimas
eôrum. *ŷ*. Requieéscant in pace. *R̄*. Amen.
ŷ. Dómine exáudi oratiônem meam. *ŷ*. Et
clamor meus ad te véniat. *ŷ*. Dóminus vobis-
cum. *R̄*. Et cum spírítu tuo.

Orémus.

Absólve, quæsumus Dómine, ánimas famu-
lorum famularúmque tuârum, & ómnium fidé-
lium defunctôrum, ad omni vinculo delictô-
rum : ut in resurrectiônis glória inter sanctos
& electos tuos resuscitáti respírent. Per Chris-
tum Dóminun nostrum. *R̄*. Amen.

R̄. Requiem aeternam dona eis Dine.

ŷ. Et lux perpetua luceat eis.

R̄. Requiescant in pace.

ŷ. Amen.

GURUTZ-BIDEA

DAMU-OTOITZA

Biotzez damuturik
Gurutz-bide ontan,
Jañaitu nai zaitugu
Oñaze miñetan.
Nai nituzke irabazi
Barkapen guztiak,
Nere ta animentzat
Iritxi zeruak.

I

Jesus ilgañi etsia.

Pilatok agintzen du
Lapur bin erdian,
Iltzez gogor josteko
Jesus Gurutzean.

II

Jesus'ek Gurutzea artzen du.

Sorbaldean duela
Gurutze aztuna,
Iltzera daramate
Gure Jesus ona.

III

Lenengo aldiz erortzen da Jesus.

Luñera erortzen da
Jesus nekatua,
Jasotzen laguntzeko
Gutziz beartua.

IV

Jesus'ek Ama Donea arkitzen du.

Aurkezten zaio Ama
Oñazez betea,
Naiago nuke, Seme,
Zurekin iltzea.

V

Gurutzea eramaten Ziryne'ko batek
laguntzen du.

Ziryne'ko gizon bat
Artzen dute lagun:
Dagokigun gurutza
Eraman dezagun.

VI

Jesus'en arpegi odoldua Beronikak
garbitzen du.

Pekatarari gogoña
¿Nun da erukia?
Jesus'i garbitzeko
Bere arpegia?

VII

Bigarren aldiz erortzen da Jesus.

Luñeko pekatuak
Eroriazten dute,
Bigarren aldiz, Jesus,
Añen damu zaite.

VIII

Jesus'ek Jerusalem'go alaben negara
arintzen du.

Jerusalem'go alabak
Ez neri negarik;
Negar egin zazute
Zuen buruakatik.

IX

Jesus irugañen aldiz erortzen da.

Neke, min, ta odelez
Aul egiñik dana,
Irugañen aldian
Erortzen da Jauna.

X

Jesus erasten dute.

Soñekoak kendurik
Oso biloitzean,
Lotzaturikan dago
Guztien aurrean.

XI

Jesus Gurutzean iltzez josten dute

Gogorki josi dute
Gurutzean Jesus,
Negar egin dezagun
Pekatuen damuz.

XII

Jesus Gurutzean jasotzen dute.

Aitari ordaintzeko
Iltzen da Semea,
Zeru eta luñaren
¡Danon Egilea!

XIII

Gerutzetik jexten dute Jesus.

Seme ila artzen du
Amak bezoetan,
Ar gaitzazu gu ere
Iltzen geranean.

XIV

Jesus'en Gorputza il-obian sartzen dute

Obira dutenean
Jesus'en Gorputza
¡Nola geratuko zan
Amaren biotza!

Oaña Egonaldi bakoitzean Aitagure, Agur
Maria ta Gloria esan ditezke, ta azke-
nean *Kredo*a.
